

434.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2023KO ABUZTUA

MAXIXATZEN


GUKA

1983KO UHOLDEAK

URAK HERRIA ITO ZUENEKOA

www.urrategiinteriorismo.com
Azpeitia Arretxe 9 Eibar Aragoiteta 27

PROIEKTUAK
OBRAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

Azkoitiko Promozio Berri guztiak ditugu. Aukera ezazu zure etxea.



Izar Jai



Ibaiondo Berri



Idiakez Ederra



MAXIXATZEN 434

2023-ABUZTUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARROITAJAUREGI
ARGAZKI FONDOA - AZKOITIKO
UDAL ARTXIBOA.

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Korapiloa Ihintza Elustondo,
<i>Despistatuta.</i> | 20 | Erreportajea Landakanda
okindegiaren agurra. |
| 6 | Hitz bitan Cruz Alberdi, Alemanian
bizi den azkoitiarra. | 24 | Klik! Herriko kaleak, mihise. |
| 8 | Izpiak eta hizkiak
Ainhoa Beristain, <i>San Martin</i>
<i>denboran zehar.</i> | 32 | Iritzia Kari Alberdi, <i>11.617.</i> |
| 10 | Iritziak Joseba Epelde, <i>Erronka</i>
<i>txikiak</i> ; Rina Cabeza, <i>Etxebizitza</i>
<i>arazoaz.</i> | 33 | Zakelmari |
| 12 | Erreportajea Urpetik atera zen
herria. | 34 | Erretratua Juan Ramon Alberdi,
idazlea. |
| 19 | Guka gara! Idoia Alberdi,
<i>Maxixatzenetik Gukara.</i> | 38 | Plazan Bazan |
| | | 40 | Elkarrizketa Miguel Diaz, Realeko
gizonen lehen taldeko delegatua. |
| | | 44 | Iritzia Ioritz Gonzalez,
<i>Berria, beti eder?</i> |
| | | 46 | Euskara Miren Alberdi,
<i>Euskararen alde?</i>
Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
azkoitia@ukt.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua
Andoni Elduaen
Erredaktore taldea
Ihintza Elustondo
Aitziber Arzallus
Unax Larrañaga
Andoni Elduaen

Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Ainhoa Beristain,
Joseba Epelde

Rina Cabeza
Idoia Alberdi
Kari Alberdi
Naia Arrizabalaga
Gorka Larrañaga
Ioritz Gonzalez
Miren Alberdi
Ugaitz Beristain

Administrazio Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



Babesleak:



EGUZKI
belardenda
diotetik
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 • 943-50 34 47 • AZKOITIA
Urbilarte 9 bis • 943-15 00 23 • AZPEITIA

Web proiektuak
Software ingeniaritza

elkarmedia ()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturea estudioa
santakilara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
sport

Ibeiondo, 7 • 943-02 58 88
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 95
AZKOITIA

fra kun

NAGUSIA 81 • 943-08 90 02
www.fra-kun.com • azkoitia_fra_kun@hotmail.com

Naike
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA S AZPEITIA
7672 17 89 51



Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA TABERNA

Etxeiza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

ATRASKUA
943-85 31 70

LATZ
TABERNA

ARTISAU PIZZAK
ENTZALADAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
RIZOAK
OGI TARTETXOAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOMMIL ETXARAK
PARRILLADAK
LARRUNBATETAN 06:00 ARTE IREKITA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

zur

OGI TARTETXOAK • SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
ENTZALADAK • RIZOAK
GARRAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA

TERRAZA HANDIA
ZUZENEKO EMANAI DIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldeko.informatika@gmail.com

ZERBER
BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTITAKO GAIK AURKITUKO DITUZU
GURE BURDINGIAN. INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,
TORLOJUAK, ERROAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA, 39 • 20720 AZKOITIA - 638 35 31 25
www.ferreteriazerber.com

Despistatuta



IHINTZA ELUSTONDO

Derrigor egin beharrekoak amaitu dituzu, zeure buruari benetan nahi duzuna egiteko baimena eman diozu. Gehiegi pentsatu gabe, galtza motzak jantzi eta buelta bat ematera irten zara.

Zergatik esaten ote dugu "buelta", joan eta ez itzultzeko abiatu bazara.

Poliki zoaz, ez alferrikako traste, ez telefono, ez laneko, ez kaleko.

Ez GPS, bidean galtzeko beldurrik ez da batere.

Denbora batez ez duzu jenderik ikusi, ez txakurrik; bizirik ez.

Hegaztiren bat, zero gainean, zure buru gainean.

Lore gorri bat ageri da lehortearen erdian, errepide bazterrean, hain gorri, hain eder.

Miraria ezerezean.

Zeure baitan galdezka ari zara, amapola bat horixe ote den.

Eta ez bada ere, ez da ezer gertatzen.

Herririk ere ez da ikusten deus, eta hurrengo biziduna non, zer lekutan, kokatuko den pentsatu duzu, basamortu horretan zarela.

Bat-batean, Done Jakue bidea egiten ari dela dirudien izaki bat gurutzat duzu, txankletak jantzita.

Ez zara haren *lookari* azalpenik bilatzen saiatu, eta agur esan diozu, norbait ikusi izanak sortu dizun poz txikia ezpainetan.

Beste pauso batzuk ematean, soroan lanean ari diren bizpahiru gizon ikusi dituzu gertu samarrean, fruta saltzen ari diren etxola bat urrunean.

Bizia leku guztietan izaten da, baita ezlekurik lehorrenean ere.

Bidegurutze batera iritsi zara, eta hantxe bizitzaren proposamena: ezkerra ala eskuina, nora luzatu zangoa, gogoia.

Ezkerra aukeratu duzu.

Horri ere ez diozu azalpenik bilatu.

Eta jarraitu duzu, pauso bat aurrena, bestea hurrena, suabe-suabe, bide guztiek nonbaitera eramaten gaituztela pentsatuta.

Oinatzek balio ote dute oinazeak estaltzeko?

Orduantxe, eguzki izpi batek jo zaitu erdiz erdi, aurpegian.

Laino artetik zure bila irten balitz bezala.

Eta bero-epeletan, urakanaren arrastorik ez da.

Horixe ote barealdia?

Noraezean ibilita ere, galduta ez sentitzea.

Itxurari, ondokoaren gorputzari, bestearen bikiniari, trikiniari, ipurdiari, begira dabil mundua.

Baina despistatuta gabiltza.

Barruak bere lekua topatu duenean, kanpoan labirintorik ez da. ■

**HORIXE OTE
BAREALDIA?
NORAEZEAN IBILITA
ERE, GALDUTA EZ
SENTITZEA**

Cruz Alberdi: "Hamburgok lan aukera zabala eskaintzen du"

TESTUA: **ANDONI ELDUAIEN**

ARGAZKIA: UTZITAKOA

Cruz Alberdi (Azkoitia, 1997) iazko azaroan joan zen Hamburgora (Alemania) bizitzera. Aeronautika sektoreko enpresa batean egiten du egun lan. "Aldaketa handia" izan da harentzat Azkoitik Hamburgora jauzi egitea.

Alemanian bizi zara joan den azaroaz geroztik. Lan bila jo al zenuen atzerrira?

Esperientzia berri baten bila etorri naiz Alemaniara, baina hona bizitzera etorri aurretik lan finko bat aurkitzea nahi nuen. Garbi nuen ez nintzela lan finko bat aurkitu aurretik etorriko, eta denbora batez bila jardun eta gero, aukera eman zidan egun lan egiten dudana enpresak. Azarotik aeronautika sektorean jarduten duen Hamburgoko enpresa batean egiten dut lana. Halako enpresa ugari dago hemen; izan ere, aeronautika sektoreko Europako hiri garrantzitsuenetakoa da Hamburgo.

Zein da zure egitekoa enpresa horretan?

Nire zeregin nagusia da hegazkinen lurreratze sistemen piezak erostea eta hornitzaileekin negoziatzea. Lan polita da, eta asko ari naiz ikasten sektorearen funtzionaltasunaz; industria modu berri batekin egin dut topo.

Aldaketa handia izan al da zuretzat horra joatea?

Ia bi milioi biztanle dituen hiri batera joatea aldaketa handia izan da. Eguneroko bizitza berregitera eraman nau: jende berri asko ezagutu dut, lagun berriak egin ditut, nire ama-hizkuntza ez den beste bat erabiltzen dut egunerokoan, ordutegiak nahiz ohiturak desberdinak dira, hirian zehar metroan mugitzen naiz... Hasiera batean ez da erreza halako aldaketetara ohitzea, baina esfortzua eginda, ohitu egiten da bat denborarekin.

Zer moduzko hiria da Hamburgo bizitzeko?

Harrituta geratu naiz duen potentzialarekin. Pentsatzen nuena baino askoz ere handiagoa da, eta etenik gabe ari da hazten. Gainera, bere izaera oso lotuta dago portuarekin nahiz haren historiarekin, eta nazioartekoa da. Futbolak ere

pisu handia du Hamburgon. Txoko berriak ezagutzen ari naiz hirian, eta egunero daude ekintza desberdinak egiteko. Ordea, nahiko garestia da; gazte askok arazoak dituzte apartamentuak lortzeko, eskuragarri direnak gutxi eta garesti baitaude. Eguraldia ere ez da nahi bezain ona izaten batzuetan.

Zer du Hamburgok Azkoitiak ez duena? Eta alderantziz, zer du Azkoitiak Hamburgok ez duena?

Hamburgok lan aukera zabala eskaintzen du, jatorri desberdinetako jendea bizi da, guztia eskuragarri dago, historia interesgarria dauka eta hirian nahiz atzerrira bidaiatzeko erraztasun ugari eskaintzen ditu. Anonimotasun eta askatasun sententzia eskaintzen du, gainera. Bestalde, Azkoitik giro herrikoi eta bakar hori sumatzen dut faltan batzuetan, hala nola familia eta betiko lagunak gertu izatea. Alderik handiena, baina, gastronomian nabaritu dut; Azkoitian askoz hobeto jaten da. Hamburgon ez diote garrantzi handirik ematen janariaren kalitateari.

Alemania lanarekin eta seriotasunarekin lotu ohi da sarritan. Horrela al da?

Lanak pisu handia du alemaniarren kulturaren. Haien ezinbestekoak dira puntualtasuna, planifikazioa eta efizientzia. Aurrezteari ere garrantzi handia ematen diote; II. Mundu Gerra osteko garaitik omen dute joera hori. Lanetik kanpo jendea ezagutzeko aukera izan dut, eta ez dirudien arren, jende alai eta parranderoa ezagutu dut; seriotasuna lanean uzten dute.

Alemania ikasten ari zara. Hizkuntza zaila al da ikasteko?

Duela hiru urte inguru hasi nintzen alemana ikasten, pandemia garaian etxean asperturik nengoen batean. Alemana ikastea ia ezinezkoa dela pentsa daiteke hasieran, baina esfortzua eginda lor daiteke. Alemaneko klaseetara joaten naiz, telebista alemanez ikusten dut, berriak alemanez irakurtzen saiatzen naiz... Horrela ari naiz hobetzen pixkanaka. Oinarritzko elkarriketak-eta ulertzeko ez dut arazo handirik, baina aldi berean, asko dut oraindik hobetzeko. ■



San Martin denboran zehar

ARGAZKIA ETA TESTUA: AINHOA BERISTAIN

"Denbora iragankorra da norberarentzat, egonkorra kanpotik bizi dutenentzat Guretzat gauzak amaitzen direnean, hor diraute besteentzat.

Baina denboran geldirik dauden horiei ere, efemerideak gertatzen zaizkie". ■■■







JOSEBA EPELDE

Erronka txikiak

Igande arratsaldea, zer egin handirik gabe. Nire aldartea ez da batere txarra, nahiz eta ia definizioz, edo dogmaz, igande arratsaldeek asteko ilunenak izan behar duten, ostiral arratsaldeek asteko gozagarrienak izan besterik ez duten moduan. Baina, ez, nire burua ez dago antsietateak jota asteak ekarriko didan lan-zamaz kezkatutik; hurrengo ordubetea nola bete pentsatzen ari naiz, besterik gabe. Eta euskaldunok erronka-zaleak garenez – halabeharrez edo definizioz hori ere–, neure buruari egiteko txiki bat jartzen saiatu naiz: zulatutako galtzerdi bat josten ahaleginduko naiz.

Ez dakit zuei gertatzen zaizuen, baina ematen du nire oinetako behatzek galtzerdiak

jaten gozatzen dutela. Eta, niri pena ematen dit ia erabili gabe dauden galtzerdiak botatzeak; xuhur samarra naizelako izango da ziur asko. Badakit zaharrak botatzea eta berriak erostea dagoela modan, eta merkeagoa eta dotoreagoa dela hori egitea jostorratzarekin nahiz hariarekin maniobrak egiten hastea baino. Alferrik da: buruan sartu zait jostea erostea baino ekologikoagoa dela; neure burua justifikatzeko modu bat baino ez da izango (Freuden

**HOBETO GERATZEN DA
EKOLOGISTA NAIZELA
ESATEA, XUHURKERIAZ
JOKATZEN DUDALA
ONARTZEA BAINO**

arrazionalizazioak, badakizu). Askoz hobeto geratzen da ekologista naizela esatea, xuhurkeria hutsez jokatzeko dudala onartzea baino. Beste arrazionalizazio horietako bat ere badut prest okasiorako: gauzei kariñoa hartzen diet, eta kostatu egiten zait zakarrontzi baten aurrean betiko adio esatea hain epela eta goxoa izan den galtzerdi bati.

Joan nadin harira. Eta harira ez dakit, baina hari bila, behintzat, abiatu naiz. Aspaldian ireki gabe nuen gure amak jostorratzak, orratzak, botoiak, hariak eta abar gordetzeko erabiltzen zuen kaxa urdina, *Danish butter cookies* tapa gainean idatzita duena. Hari beltza hartu, eta... uff, ezin sartu jostorratzaren begian! Mingainarekin hari-punta busti, jostorratz-

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



RINA CABEZA

Etxebizitza arazoaz

Etxebizitzaren arazoaz hitz egiten hasteko, ezin dut aipatu gabe utzi pasa den ekainean Bilbon jendartean aurkeztu zen Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista. Azken urteetan, etxebizitzaren arazoaren okertzearekin batera, langileon bizi baldintzen aurka erantzuten saiatu diren hainbat ekimen eta planteamendu sortu dira. Horrek argi eta garbi adierazi du etxebizitzaren alorrean autodefentsa antolatzearen beharra. Eta horretara etorri da Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista.

Argitara atera zuten programa politikotik hainbat ideia ekarri nahiko nituzke. Alde batetik, espekulazioa da etxebizitzaren prezio eskuraezinen funtsezko arrazoietakoa bat. Bestetik, putre funtsek nahiz bankuek bezalako kapital handiek eragin sozial eta politiko nabarmena lortzen dute duten botere ekonomikoaren bidez.

Gauzak horrela, etxebizitza bat modu unibertsalean eta doan bermatzeaz hitz egiten dugunean, kapitalisten irabaziari eraso egiteaz mintzatzen ari gara. Arazo hori modu efektiboan deuseztatzeko modu bakarra da sistema hau abolitzea. Gaurdanik langileon mesedetara egongo diren instituzioak sortzea ezinbestekoa dugu bide horretan. Beraz, ongi etorri!

begiaren alde batera zein bestera behin baino gehiagotan jo, eta, halako batean, argitara mugitu eta hari punta sartzen asmatu dut, baina punta bakarrik; hortik aurrera, ezin, eta atzera egin behar berriz ere. Beste hainbat saiakera ustel egin ondoren baino ez dut lortu hari osoa behar bezala sartzea. Messi gol bat sartutakoan baino pozago jarri naiz!

Lehen urratsa eginda: dagoeneko eskuetan ditut lanerako behar ditudan tresna guztiak. Zulo bedeinkatu hori ixteari ekin diot. Eskerrak oso handia ez den! Sastada bat baino gehiago ere hartu dut eskuko hatzetan, ez bainaiz gauza izan titarea topatzeko (titarea, zein hotz eta lehor ageri den hitz hori idatzian, eta zein doinu goxoa ematen

diogun azkoitiarrok ahoz erabiltzen dugun bakanetan). Kito! Gaingitu dut azkenean erronka. Nire artelana nola geratu den beste kontu bat da, galtzerdia jantzi eta oinez hasi orduko oinetakoetan hartxintxarrak nituela ematen baitzuen.

Barkatuko didazue, baina okerreko bidetik eraman zaituztet, nahita. Nire erronkak ez zuen zerikusirik hari bat jostorratz baten begian sartu eta galtzerdi baten zuloa konpontzearekin; benetan lortu nahi nuena hori bezalako jardun soil bati buruzko artikulu bat idaztea zen, eta, bide batez, esker handirik gabe hamaika zulo, botoi eta petatxu josi zituzten hainbat emakumeri omenaldi xume bat egitea. Horixe egia berdaderoa.





Urpetik atera zen herria

40 urte beteko dira abuztuaren 26an urak Azkoitia ia bere osotasunean bere menpe hartu zuenetik. Naturak bere indarrak erakutsi zuen egun hartan herrian. Euria goi eta behe egin zuen zenbait orduz, eta denborale hartan pilatu zen urak ezbeharrak eragin zituen. Herritar askok eta askok pairatu behar izan zituen ondorioak, eta Maxixatzenek egun hura gogoan duten zenbait herritarren bizipenak jaso ditu.

Testua: **Andoni Elduaen**. Argazkiak: **Arroitajauregi Argazki Fondoa - Udal Artxiboa**.



Plazaberria urak guztiz hartuta.

Urak beti bere bidea egin ohi duela esan izan da, baina olde handietan gaizto eta etsai bihurtzera ere irits daiteke herrietako biztanleentzat. Mundu zabalean ia egunero izaten dira uholdeak, baina Azkoitia arrisku horretatik urrun dagoela dirudi egun. Hamarkada batzuk atzera eginda, ordea, oker dezenteak egindakoa da ura herrian, eta behin baino gehiagotan, gainera. Hilabete honetan bertan, esaterako, 40 urte beteko dira urak herria bere menpean hartu zuenetik: 1983. urteko abuztuaren 26an izan zen.

Abuztuaren 25etik 26rako gauean eguraldiaren egoera makurtzen hasi zen. Ekaitz gogorak eragin ohi dituen kumuloninbo hodei masa handi batek ekialdetik mendebaldera egin zuen bidea Ipar Euskal Herrian, eta abuztuaren 26ko goizaldean iritsi zen Gipuzkoara. Hodei masak zuen guztia eta gehiago hustu zuen lurraldean, baita Azkoitian ere. Goiz hartako euriteek eragina izan zuten herrian, bereziki Goikokalen. Ekaitza urrundu egin zen, baina arratsaldean berriro itzuli zen, kalte latzagoak eraginez. Garaiko adituen arabera, herrian metro koadroko 234 litro euri egin zuen abuztuaren 25etik 27ra bitartean, eta horrek ibaiek nahiz errekek gainezka egitea eragin zuen.

Azkoitia erabat urperatuta gelditu zen orduan, eta kalteak izugarriak izan ziren; izan ere, garai hartan ohikoa zen artean etxeen behaldeetan bizitzea, eta nola ez, asko eta asko ziren gaur bezala saltokiak nahiz lantegiak etxebean zituzten herritarrak. Dendak, tabernak, etxeak, biltegiak... zer ez ziren orduko hartan kaltetu.



Hondamendi hartatik lau hamarkada igaro badira ere, kalteak pairatu zituzten azkoitiarrek ondo gogoan dute egun hartan bizitakoa. Bitturi denda kudeatzen zuen sendiak, esaterako, oso gertutik bizi behar izan zuen uholdea. Bitturi Goikokaleko janari denda bat izan zen, Goikokaletik Jausoro auzunera doan zubiaren ondokoa. Urak inguru hartan hartu zuen aurrenekoz ibaitik kalerako bidea Azkoitian; izan ere, Katuin erreka, Baztarrikaldea zeharkatzen duenak, Jausoroko zubiaren parean egin ohi du bat Urola ibaiarekin. Orduan, egun baino zakarrago egin ohi zuten bat urek puntu hartan, Katuin erreka urek zuzenki jotzen baitzuten Urola ibaiko uren aurka, hala ibaiaren igoera eraginez.

"Ibaiak gora eta gora" etenik gabe egiten zuela oroitzen du duela 40 urteko uholdeen eguna Bitturi dendako sendiak. Maria Jesus Arenas (Azkoitia, 1945) eta Milagros Badiola (Azkoitia, 1945) koinatak dira, eta haiek kalearen goialdean ura errepidera irteten ikusi zuten aurrena. Ordea, ura etxeko atea jo gabe hasi zen barrura sartzen handik gutxira, gaizto. "Erratzekin-eta hasi ginen urari etxera sartzea eragozten, baina une batetik aurrera, alferrik zen han erratzekin aritzea, erreka txiki bat hasi baitzen etxera sartzen. Ez ginen gauzak salbu jartzearekin asko akordatu, baina oroitzen dut agiri eta paper batzuk jaso genituela goiko solairura", adierazi du Badiolak. Ura, "gutxi gorabehera metrotik gora" iritsi zen haienean.

Etxebe batean zuen Arenas-Usabiaga sendiak janari-denda, eta harekin batera sukaldea, egongela eta komuna; egongelatik komunerako bidean, berriz, armairu handi bat zuten. Bestalde, goiko solairuan zituzten gainerako gelak. Urak etxearen beheko solairua bere egin zuen azkenean, eta han zeuden familiako kideek solairu hura utzi eta goiko aldera erretiratu behar izan zuten. "Terrazara igo behar izan genuen, eta han egon ginen euria atertu eta ura etxera ez zela sartzen baieztatu nahiz bere bidera itzuli zela ikusi arte", adierazi du Badiolak.

Egoera hobetzen ari zela ikusita, laster ailegatu zen gainerako senideen laguntza, eta guztien artean "berehala" txukundu zuten urak hartutakoa. "Oilaskoak erosi, labean sartu genituen, eta erabaki



genuen emakumeek nahiz haurrek jango genuela aurrena", dio Arenasek. Dena den, koinatek diote egun hartan presaren bat ireki zutenaren zurrumurrua zabaldu zela herrian. "Une batetik bestera, bat-batean, ikaragarritzko ur oldea etorri zen ibaian goitik behera; metro eta erdiko altuera hartu zuen urak gure etxebean. Aurreneko aldian baino dezentez ur gehiago sartu zen bigarrenean. Haurrek eta emakumeok jan genuen, baina gizona ez, eta egoera hura ikusita, berriro ere goiko solairura erretiratu ginen".

Galerak handiak izan ziren haienean, eta hozkailuak, labeak nahiz bestelako beste zenbait etxeko traste kendu behar izan zituzten, urak hondatuta. "Gauza batzuk etxean utzi genituen hasieran, baina denbora batera guztiak kendu; izan ere, uraren hezetasunak nahiz ur zikin hark eraginda, gerora ere hautsa sortzen zen etxean", diote koinatek.

Arenasen iloba eta Badiolaren alaba Mari Karmen Arenas (Azkoitia, 1971) neska koskorra zen orduan, eta hark uholdea jazo aurretik etxeko leihotik ibaira begiratuta ikusten zuena du gogoan. "Etxeko leihotik begiratuta, zirrara berezia sortzen zen ibaiak gora egiten zuenean, ura leihotik zentimetro gutxira edota metro erdira gelditzen baitzen askotan. Neguan, bereziki, askotan gertatzen zen hori". Halaber, katuaren pasadizoa du gogoan. "Katuaren bila ibili nintzen, eta halako batean igerian agertu zitzaigun".

Errebalean, Santa Klara 20 zenbakian, zuten, bestalde, Mari Karmen Diaz de Cerioren (Azkoitia, 1965) etxekoek Asa janari-denda 1983ko uholdeak jazo zirenean. Haren izeba Kontxita Epeldek kudeatzen zuen denda urte hartan. Diaz de Ceriok dio "sekulako kalteak" eragin zizkiela uholde hark bai dendan, bai biltegian. "Aldameneko batek deitu zigun guri. Haiek ohartu ziren kalean ura zegoela, eta beharbada, dendara ere sartua izango zela esan zigun. Gaua zen mugitu ginenerako, eta ordurako ura sartzen ari zela jabetu ginen. Hurrengo egunean, berriz, zer esanik ez. Denda urez goraino bete zitzaigun, eta kalteak ere izan genituen".

Dendako makinak-eta izorratu ziren Asa dendan, baina Diaz de Ceriok gogoratzen du jeneroa kaltetu zitzaizela bereziki. Gainera,

Herritarrek uholdeari begira, herriko plazan.



Ezkerrean, biltegi bat urak hartuta.

Erdian, lbaiondo kaleko irudia.

Eskuinean, boluntarioak Plazaberrin.

kalean gora joanda, produktuak gordetzeko biltegi bat zuten, eta dendan bakarrik ez, han ere izan zituzten galerak. "Olioak-eta gordetzen genituen han, baita dendan saltzeko jeneroa ere. Kristalezko ontzia zuten produktuak-eta ez, baina gainerako ia guztia galdu genuen. Ura sartu zitzaien barrura, nola ez, eta galdutako jenero kopurua zenbatzen aritu ginen. Galera ekonomikoak izan genituen".

Dendaren goiko solairuan zuten etxebizitza haiek; halere, "beldurra" berdin-berdin pasatu zuten. "Goizean, une bat, nahikoa gogorra izan zen, dendara ere ezin ginen sartu eta. Urak behera egin zuenean, bai, lortu genuen sartzea. Baina egundoko lokatzarekin egin genuen topo". Halaber, ingurukoek eta auzotarrek "asko" lagundu zietela oroitzen da Diaz de Cerio. "Garbitzen eta gauzak bere tokian jartzen lagundu ziguten inguruko herritarrek; auzolanean aritu ginen, eta laguntasun handia eman zigun jendeak". Bide batez, oroitzen da bere osaba batek Vespino moto bat zuela, eta hura ere hondatu egin zela. "Moto zahar-zaharra zen, baina pena eman zigun, osabak kutuna zuen eta".

Eginbeharrak, guztiek

Egun hartan nahiz ondorengoetan, azkoitiar guzti-guztiek egin behar izan zuten lan era batera edo bestera. Roman Sudupe (Azkoitia, 1947) alkatetzaren bigarren agintaldiko lehen hilabeteak ari zen bizitzen 1983an. Suduperen esanetan, "gertakaririk gogorrenetarikoa" izan zen uholdeena, "sekulakoa". Ordea, urak herriko kaleak hartu zituen egunaren bezperan familiarekin oporretara abiatu zen Sudupe. "Andremariak igaro berri, atsedean hartzera joan ginen familiakoak Corellara (Nafarroa). Hara iritsi orduko, gaixotu egin zen semea; 40 graduko sukarra eta hark eragindako eldarnioak zituen. Hurrengo goizean, Iruñeko ospitalera eraman behar izan nuen hura. Bururatu zitzaidan Azkoitira abiatzea ere, baina semearen egoera zen bezalakoa zen, eta han gelditzea erabaki nuen. Gainera, eskerrak ez nintzen herrira abiatu, ez nintzatekeen-eta ailegatuko".



Ibaiak handi etortzen segitu zuen gerora ere, baina, gutxienez, herriko kaleek ibai izateari utzi zioten. "Ni herrira itzuli nintzenerako ez zegoen urik kalean", azaldu du Sudupek. Egoera baretu orduko hasi zituen udalak herria lehengoratzeko lanak. "Hiru ardatzeko plangintzan" oinarritu zen udala herria uholdearen aurreko egoerara itzul zedin: "Argindarrik ez zegoen toki askotan, eta markatu genuen lehentasunetako bat izan zen hura birgaitzea. Bestetik, hainbat sototan eta gunetan pilatutako ura ateratzen aritu ginen; ura ponpatzeko makinak eta tutu pila bat erosi zituen horretarako udalak". Horiekin batera, instalazio guztiak martxan jarri behar izan zituen erakundeak.

Uholdeak igaro eta bigarren egunerako utzi zuten, bestalde, kalean bildutako zikinkeria guztia jasotzeko lana. "Kalean lokatza mordo bat pilatu zen", dio orduko alkateak. Hain justu, boluntarioen eta Udaltzaingoaren artean lehengoratu zituzten kaleak. Juanjo Heras (La Aldehuela, Avila, Espainia, 1948) Udaltzaingoaren kaboa zen sasoi hartan. Txulota baserrian bizi zen hura orduan, eta gogoan du ez zuela lortu kalera autoz iristea; errepidean pilatutako lurra eragotzi zion ibilgailuan egin beharreko bidaia. "Oinez abiatu behar izan nuen, eta halako batean iritsi nintzen".

Kalera ailegatu orduko piztu zitzaion "samina" Herasi. "Ur gehiena joana zen, baina inguru guztiak zerri eginda aurkitu nituen. Ikaragarria izan zen hura guztia ikustea, pena itzela ematen zuen". Udaltzainaren arabera, egoera hark ez zuen "lanak koordinatzeko betarik ere" utzi. Halere, gogoan du udaltzain guztiak elkartu zirela lanerako. Guztia onera ekartzeko aitzurrekin nahiz palekin aritu ziren lanean, baita etxeetatik nahiz saltokietatik herritarrei altzariak ateratzen laguntzen ere. "Alkateak esan zigun herritarren esanetara jarri behar genuela, eta halaxe egin genuen. Kaleak eta gunek garbitzen, bazter guztietan laguntzen... Saltokiak-eta zaintzen ere aritu ginen, inor lapurretara sar ez zedin. Zerbitzuan geundenak eta zerbitzuz kanpo zeudenak, azkenean guztiok igaro behar izan genituen orduak lanean". Hain justu, gertakari txar hari alderdi

**ADITUEN ARABERA,
METRO KOADROKO 234
LITRO EURI EGIN ZUEN
ABUZTUAREN 25ETIK
27RA BITARTEAN**

**ARABA, BIZKAI ETA
GIPUZKOAKO HERRI
GEHIENAK IZENDATU
ZITUZTEN HONDAMENDI
EGOERAKO EREMU**



Ezkerrean, Balda plaza eta Ibaiondo arteko zubi ingurua.



Eskuinean, uholdea Jausoro aldean.

positiborik ere atera nahi izan dio Herasek. "Mundu guztia elkarri laguntzen aritu zen; oroitzapen hori dut gordeta. Asko dut eskertzeko, azkoitiar guztiek jokabide ona erakutsi zuten eta".

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako herri gehienak hondamendi egoerako zonalde izendatu zituzten, tartean Azkoitia. Gertakari haiek igaro eta bost urtera, 1988an, jazo ziren hamarkada hartako bigarren uholdeak Azkoitian, baina herrian ez zuten 1983koek bezainbesteko eraginik izan. Herriko orain arteko historiako azken uholdeak izan zirek haiek, gerora ibaia birmoldatzeko lanak egin zituzten-eta herrian. Harrezkero, urak normaltasunez egin izan du bere bidea.

70 urte, 1953ko uholdeetatik

1953ko urriaren 14an jazotako uholdeak ondorio tamalgarriak izan zituen herrian. Urriaren 14an, litro asko pilatu ziren metro koadroko Azkoitian, Azpeitian eta Zestoan. Hori horrela, Urola ibaiak gainezka egin zuen oso modu larrian, eta hondamendiak galera handiak eragin zituen, materialez gain hildakoak ere eragin baitzituen. Zestoa parean, esaterako, lau azkoitiar hil ziren, Urola ibaiaren ur korronte batek autobus eta kotxe bana aurretik eramanda.

Ezbeharrak izan zuen autobusa 28 bidaiarirekin abiatu zen arratsaldean Donostiako Gipuzkoa plazatik. Zestoako Iraeta auzotik atera eta Osinbeltzeko harrobiaren amaierara heltzean izan zituzten lehen arazoak; izan ere, autobusa ez aurrera ez atzera geratu zen urak geratutako auto bati laguntzen ari zirela. Autobusaren motorra ere urez bete zen gero, eta urak metro eta erdiko altuera ere hartu zuen ibilgailuaren bueltan. Autobusetik irtetea lortu zuten batzuek, baina barruan ateratzera ausartu ez ziren hamasei pertsona geratu ziren. Ez aurrera eta ez atzera zegoen autobusa handik ateratzen saiatu baziren ere, gauerdia igaro eta laster urak desagerrarazi zuen ibilgailua, barruan hamasei lagunak zituela. Autobusarekin batera, senar-emazte azkoitiar batzuk harrapatuta egon ziren auto bat ere eraman zuen urak. Urriaren 16ko arratsaldean kalera atera zen Azkoitiko herria, Zestoatik ekarritako biktimei azken agurra emateko. ■■■

Maxixatzenetik Gukara



IDOIA ALBERDI



Gogoan dut izena erabaki genueneko. 1996ko udaberria zen.

Aldizkaria itxura hartzen ari zen eta izen bat behar zuen. Lekutan zeuden gaurko marka zein marketin estrategiak. Gutxienekoa ez, baina garrantzitsuena ere ez zen izenarena guretzat, ezta hurrik eman ere. Azkoitiko euskaltitik ekarritakoa eta eskuartean geneukan proiektuaren jardunarekin zerikusia zuena. Harilkatu beharreko ideiak horiek ziren. Taldekide batek proposatu zuen Maxixatzen, amari entzun ziolako, eta ia eztabaidarik gabe, tokiko kazetaritza euskaraz jorratzera zetorren hedabidearen goiburuan huraxe geratuko zen iltzatuta, gaur arte. Baita aldizkariari aterpea emateko ondoren sortuko zen euskara elkartearenean ere.

Xume, oso xume ekin genion. Euskara sustatzea genuen bokazio, eta herri aldizkaria zen horretarako tresna. Baliabide gutxi, baina ametsetan kabituta ezinda bezala genbiltzan. Ordutik, abaila batean handitu da proiektua, baita hartu beharreko erabakien pisua ere.

Herri komunikabidearen historian hizki larriz nabarmenduta geratuko direnen artean, zalantzarik gabe, UKT kooperatibara batu ginenekoa dago. Ezin esan erabaki erraza izan zenik. Baina, asmatu genuen, asmatu genuenez. Denbora ari da erakusten Maxixatzen gaur produktu hobea dela, profesionalagoa, eta langileen baldintzak, duinagoak. Begirada epe luzera jarrita duen euskarria, finean. Gure txikian geratuta, hori ezinezkoa zatekeen.

Ia etxekonean, Debagoienan, aspaldi egin zuten tankerako bidea. Tokiko kazetaritzan erreferenteak dira, beti aurretik, eta honetan, ere bai. Badira urte mordo bat Aretxagazeta, Arrasate Press, Berrigara, Ze barri, Kontuola, Txirritola eta Goibekokale hedabide bakarrean batuta eta

**BIDEAN AURRERA
EGITEA DAGOKIGU,
MOLDE ETA BEHAR
BERRIETARA
EGOKITUTA**

Goiena markaren aterkipek aritzen direla berriak zabaltzen. Hurbil hurbiletik, dena euskaraz.

Gurera ere heldu da marka bakarraren gaineko gogoeta. Hizki larriz gordeko dugun beste bat. UKT osatzen duten hedabide guztiek (Maxixatzen, Uztartaria, Baleike, Karkara, Zarauzko Hitza, Urola Kostako Hitza eta Erlo) Guka izena hartuko dute aurrerantzean, horretan aditu direnek hala aholkatuta. Beste behin, ezin esan eztarrian korapilo txikia sortu ez zaigunik. Baina bidean aurrera egitea dagokigu, molde eta behar berrietara egokituta. Bagoazen seinale da hori. Narratiba berriak sortu, eraldatzaileak, etorkizuneko hedabideen norabidea zehazteko, misioa ahaztu gabe. Horretara dator Guka. Izenak izen, izana delako hemen balio duena. Eta euskara aspaldiko oldarraldirik handiena pairatzen ari den honetan, ez dezagun ahaztu euskarazko prentsa dela askok eta askok euskaraz irakurtzen duten bakarra. ■

Landakanda okindegiak ateak itxi ditu

Ehun urtetik gorako ibilbidean, hiru belaunalditako hainbat senidek jardun dute familiako negozioan lanean, baina ixteko ordua iritsi dela erabaki dute Jesus eta Antton Zubizarreta anaiek. Jesusek erretiroa hartu du orain, eta Anttonek pizzerian jarraituko du lanean, jubilatzeke garaia iristen zaion bitartean.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Andoni Elduaen**.

Ehun urte baino gehiago dira Landakanda baserriko errota martxan jarri zutela, eta harrezkero, azkoitiarrek egunero-egunero izan dute han egindako ogia mahaian izateko aukera. Familiako negozioan, hiru belaunalditako hainbat senide jardun dira lanean buru-belarri; azkenak, Antton (Azkoitia, 1962) eta Jesus Zubizarreta (Azkoitia, 1958) anaiek. Jesusi, baina, erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio, eta horregatik, okindegiko ateak behin betiko ixtea erabaki dute. Erabaki erraza ez dela izan aitortu du Anttonek, "baina ordua ailegatu" zaie: "Hiru belaunaldi jardun izan gara hemen lanean, eta iruditzen zaigu nahikoa egin dugula".

Anttonen eta Jesusen aitona izan zen Landakandako errota eraiki eta martxan jarri zuena. Data zehatzik ez du buruan Anttonek, baina bai ehun urte baino gehiago izango direla: "1917tik 1920ra bitartean izango zen". Semeetako batek hartu zion lekukoa hari, Anttonen eta Jesusen aita zenak, hain zuzen. "Aitak Xauenen (Maroko) egin zuen soldadutza hiru urtez, eta handik bueltan, errotaren ardura hartu eta okin hasi zen lanean", ekarri du gogora Anttonek.

Oraindik ere lurrian nabariak dira garai hartan ogia erretzeko erabiltzen zuten labearen arrastoak, eta Anttonek ederki oroitzen du baserriko atarian zer-nolako egur piloa egoten zen beti, lehortzen, gero laberako erabiltzeko.

Anttonek eta Jesusek beste sei anai-arreba izan dituzte, zortzi izan dira guztira, eta umetan den-denek lagundu behar izaten zuten etxeko negozioan. Gerora, berriz, bi kenduta beste guztiak okindegian jardun izan dira lanean. "Erretiroa hartu ahala, hurrengoaren ardurapean gelditzen zen negozioa, eta ni izan naiz azkena, anai-arrebetan gazteena naizelako", azaldu du Anttonek. "Azken urteetan, Jesus izan da okina, eta ni beste gauza guztiak: banatzailea, gozogilea, opilgilea...".

Garai batean, ogia bakarrik egiten zuten Landakandan; "tira, ogia eta esneopilak", zehaztu du Anttonek. "Esneopilak betidanik egin izan ditugu, eta garai batean, institutu garaian eta, Landakandako esneopilak famatuak ziren, baita Azpeitian ere. A zer ilarak sortzen ziren!". Garai hartan Zabale baserriko esnearekin egiten zituzten opil horiek, eta "zapora berezia" izaten zutela dio, "beste zera bat", gaur egungoen



aldean. "Gaur egungo opilek, gurina, esne hautsa eta beste hainbat osagai izaten dituzte, gauza naturalak, baina aldea antzeman egiten da; lehengoek, esnea, azukrea, irina eta arrautzak besterik ez zituzten izaten".

Sutea eta azpiegituren berritzea

Duela 42 bat urte, ia erabat erre zen Landakanda baserria. Anttonek 19 bat urte izango zituen orduan, eta Gasteizen unibertsitateko ikasketak egiten ari zen. "Egurrezkoa zen baserria, obradorea zegoen partea izan ezik. Parte hori hormigoiz indartuta zegoen, eta huraxe izan zen salbatu zen bakarra. Eskerrak horri, lau egun besterik ez ginen egon ogirik egin gabe. Gogoan dut herriko jendea nola entzori zen laguntzera, eta nola jardun ginen lokal batera makinaria eramaten. Makina gehienak onik ateratzea lortu genuen, eta obradorea toldoz estalita, lau egunerako berriz lanean hasteko moduan izan ginen". Gero, pixkanaka-pixkanaka joan ziren eraikina berritzen, eta okindegia ere berritu zein modernizatu egin zuten: labe berriak jarri zituzten, makina berriak... "Orduan hasi ginen ogiaz gain croissantak, madalenak eta beste hainbat eratako opilak egiten, ogiarekin bakarrik bizimodua ateratzea geroz eta zailagoa baitzen".

Handik urte batzuetara, duela 32 bat urte, denda bat zabaldu zuten, Julio Urkixo kolean, batzokiaren parean. "Herrian era horretako okindegi-kafetegi bat irekitzen lehenengoetarikoak izan ginen, eta han, ogiaz eta hainbat eratako opilez gain, geuk egindako pastak eta abar eskaintzen ere hasi ginen".

Kolean saltokia jarri arren, batzuek Landakandara bertara ogi bila joateko betiko ohiturari eutsi egin zioten, eta horrez gain, etxez etxeko banaketa ere beti egin izan dute. "Aita zena eta anaia zaharrena bizikletarekin eta karroarekin ibiltzen ziren ogia banatzen, otarreak hartu eta etxez etxe. Baserritarrak, berriz, normalean etorri egiten ziren ogi bila. Gerora, banaketa autoz egiten hasi ginenean, baserrietara ere geu hasi ginen ogia eramaten".

Txarra ez, baina gogorra

Okindegia ixteak sentimendu kontrajarriak sentiarazi dizkiela aitortu du Anttonek; tristura eta pena bai, baina lasaitasuna ere bai. "Anaiak berez urtarrean bete zituen 65 urte, baina hizketan egon ginen, eta erabaki genuen uda arte lanean segitzea, bezeroak zintzilik ez lagatzeagatik.

Hilabete hauetan itxiera onartzeko astia izan dut, eta noski, tristura eta pena ere sentitu ditut, sekulakoak. Ordea, beste alde batetik lasaitasuna ere bai, lana bera gogorra baita; ez da lan txarra, baina bai gogorra, ogia egunero-egunero egin behar izaten da eta". Okindegian jardutearen gogorrena, egutegia eta ordutegia izan direla esan du hark. "Anaia 00:00etan hasten zen oreka egiten, eta 08:30-09:00 aldera bukatzen zituen lanak. Ni, berriz, 04:00etan hasten nintzen, eta bukatzerako 13:00-13:30 ingurua izaten zen. Lehen, arratsaldeko ogia ere egiten genuen, baina pandemia garaian utzi egin genion lan horri. Gerora erabaki genuen ezetz, berriz ez ginela bueltatuko arratsaldeko ogia egitera; ogia ona bada, goizean erositakoa gauean ere ona egoten baita".

Jesusek 51 urtez gauzez egin du lan, eta erraz esaten den arren, "gogorra" da hori. "Nik askatasun gehixeago izan dut, lanak bukatu ostean siesta egin eta arratsaldeak aprobetxatzeko aukera izan dudalako, baina anaiak ez du bizimodu 'normal' bat egiteko aukerarik izan, gau guztia lanean jardunda, beti beste guztien kontrara ibili baita. Gainera, nahiago orain itxi, geuk erabakita eta osasunez ondo gauden bitartean, halabeharrak bultzatuta baino".

Anttonek kontatu duenez, garai batean, "duela 40 urte eta", igandeak libratzeko aukera izaten zuten, igandeetan ogirik ez baitzen egiten. "Zapatuetan bikoitza egiten genuen eta baserriko ogi pila, eta herritarrak horrela moldatzen ziren". Gerora, igandeetan okindegiak txandaka lan egiten hasi ziren. "Okindegi bakoitzari hilean behin-edo egokitzen zitzaigun txanda, eta egun horretan herri guztirako ogia egin behar izaten genuen. Kontzejupean jartzen ginen ogia saltzen, eta meza bukatu osteko unea zoramena izaten zen, orduan, orain ez bezala, jendea elizara joan egiten baitzen". Gogoan du lau lagun aritzen zirela Kontzejupean ogia saltzen, eta anaiak autoarekin ogia ekarri eta ekarri, eta hala ere, ezin iritsi. "Orduan bai saltzen zela ogia, ikusgarria izaten zen hura, espektakulu bat, beste mundu bat".

Handik urte batzuetara, Floreagako bezero batek, "bezero on batek", igandeetan denda zabaltzen hasteko asmoa zuela jakinarazi zien landakandatarrei, eta igandeetan ere ogia egiteko eskatu, bestela Azpeitiko okin batengana joko zuela eta. "Horrela hasi ginen igandeetan ere lan egiten, gure atzetik beste batzuk hasi ziren, eta

azkenean, denok eta igandero. Azken hemezortzi urteotan, okindegian aritu garen lau anai-arrebok egunero-egunero lan egin dugu, jaiegun bakar bat izan gabe. Aukera izan bagenu langile bat kontratatzeko eta geuk atsedeen pixka bat hartzeko, egingo genukeen, baina bai zera. Okindegia negozio errentagarria izan da, baina justukoa, batere harrokeriarik gabekoa". Izan ere, urteekin ogiaren kontsumoa jaitsi egin dela ziurtatu du hark. "Jendeak geroz eta ogi gutxiago jaten du, eta saltoki handietan ogia saltzen hastea izan zen ia azken sastakada. Esan bai Landakandako ogia ona egoten dela, baina gero, ogia eroatera, supermerkatu. Igandeetan, haiek itxita daudenean, orduan etortzen dira okindegira, eta gainera, kexatu, ogi zuria nahi dutela eta hau eta bestea; horrelakoxeak gara".

Azken urteotan langile bat hartu izan dute noizean behin, okindegian aritu diren anai-arrebetako bakoitzak urtean hamabost eguneko oporrak izan zitzaizkien bermatzeko, baina kito; eta lehen ezta hori ere. "Gainera, esan beharra dago okindegirako langilea topatzea ez dela batere erraza; harategian eta ostalaritzan inork ez du lan egin nahi, ezta okindegian ere".

Okindegia itxita, duela hemezortzi urte herrian zabaldu zuen pizzerian jarraituko du lanean Anttonek. "Izango dut zer eginga, baina azken urteotan baino lasaiago ibiliko naiz, eta eskertuko dut hori. Izan ere, bizitza guztian banaketan ibili naiz, banaketan eta beste hainbat gauzatan, baina azken urteetan zeregin asko pilatu zaizkit. Anai-arrebetako bat jubilatzen zela, nik hartzen nituen haren lanak; beste bat erretiratzen zela, harenak ere bai... Orain, nire asmoa pizzerian zentratzea da, bizitza lasaiago hartzea, eta urte batzuk barru erretiroa hartzea". Orain arteko ofizioa ez du erabat baztertuko hala ere. "Gozoak eta postreak egiten jarraitzeko asmoa badaukat, baina pizzeriarako". ■■■



"ORDUA AILEGATU DA; HIRU BELAUNALDIZ JARDUN GARA HEMEN LANEAN, ETA NAHIKOA EGIN DUGU"

"FAMILIAKO NEGOTZIOA IXTEAK PENA EMAN DIT, BAINA BESTE ALDE BATETIK LASAITASUNA ERE BAI"



Herriko kaleak, mihise

Badira Azkoitiko hainbat txokotan paretak apaintzen dituzten zenbait margolan. Batzuk enkarguz eginak dira; beste batzuk, ekimen bat aditzera eramateko; eta beste zenbait, kalezulo ilunak argitzeko. Hainbat artelanean zergatiak eta horien egileak aztertu daitezke hemen, argazkien bitartez.

Testua: **Unax Larrañaga**. Argazkiak: **Andoni Elduaen eta Unax Larrañaga**.



EMAKUME BASERRITARREI OMENALDIA

Uzin baserriko Kandida Azkarate Askasuaren argazki batetik abiatuz egin zuen Udane Juaristik Berdura Plazan kokatuta dagoen margolan honen konposizioa, bere birramona baitzen. Baserritarrei, eta, batez ere, emakume baserritarrei egin nahi izan zien omenaldia artistak, horien isilpelko lana lehen planora emanez eta emakumea protagonista eginez.

EGUNEROKO BIZITZAREN ISLADA

Udane Juaristik Aizkibel kalean egindako lana da irudikoa. Floreaga jauregiaren ondoko igogailuaren aurreko etxaurrean dago kokatua Juaristik lehenaldiari, orainaldiari eta egunerokotasunari egindako omenaldia. Azkoitiko herriari egindako keinu bat da, bertako paisaia urbanoan oinarritua.



MIKEL LABOA

Lizardik eta Rimbaudek Floreaga auzoaren azpialdean egindako lana da irudikoa. 2010ean egin zuten Mikel Laboaren irudia aurkeztuta, *Liluren* kontra kantaren estrofa banarekin, eta beste hiru irudi ere margotu zituzten Baztanen (Nafarroa), Donostiako Antigua auzoan eta Lekeition (Bizkaia).



DETAILEAK

Artista ezezagunaren irudia da horma horretakoa. Herriko hainbat paretatan gisa horretako margolan ugari daude, txantiloiak erabiliz eginak. Halako detailetxoek ematen diote falta zaien argia edozein txoko iluni, eraikin zaharkituri edota kalezulori. Horixe da kaleak arte bilakatzearen magia.



GAZTEAK ERE KALEAK MARGOTUZ

Azkoitiko Gazte Asanbladak Julio Urkixo etorbidean egindako lana da irudikoa. *Gaztik kalik astintzen* lelopean margotu zuten pareta koloretsu hori Azkoitiko Gazte Asanbladako kideek.



HOLZ UND BLECH

Iban Eizagirrek eta Suharri Aranburuk Julio Urkixo etorbidean egindako lana. Musika elektronikoak badu bere txokoa Azkoitian. Urtero ospatzen den Holz Und Blech festibalaren omenez egin zuten Eizagirrek eta Aranburuk artelan hau. Bertan, festibaleko musika jartzaileei keinua eginez, fonografo bat ikus daiteke disko bat erreproduzitzen.

MATADERO EKINTZAK

Mataderoko kideek bertako paretan egindako lana da irudikoa. 1993an itxi zituzten Azkoitiko eta Azpeitiko gaztetxeak, biak egun berean, dekretu bidez. Horietan elkartzen ziren gazte asko kalean geratu ziren; entseatzeko lokalak baino ez zituzten, eta ez zeukaten biltzeko lekurik. Okupatzeko zenbait saiakeraren ondoren, 1996an Matadeiko lokal handia berreskuratzea erabaki zuten. Kanpoaldean hainbat artelan egin dituzte urteetan zehar.





GASOLINDEGIAN, HISTORIA

Gorka Larrañaga *Iranixek* Ibaiondo kaleko gasolindegian egindako lana da argazkikoa. Duela ia mende bat Plazaberrin egon zen gasolindegia eta egun Ibaiondo kalean dagoen gasolindegia historiari buruzko margolanak egin zituen hormetan Iranixek. Gasolindegia planoak ere marraztu ditu, baita Azkoitiaren iraganeko beste hainbat irudi ere.



ARTEA ALDARRI

Ekida arte ekimen sozialistak Juin industrialdean egindako lana da honako hau. 2023ko urtarrilaren 28ko grebaren harira egin zuen Ekidak murala, *Gazte langileok borrokara* lelopean, industriadeko zubiaren azpian.



HERRIAREN BIHOTZA

Gorka Larrañaga *Iranixek* Altzibargo biribilgunean egindako lana da honako hau. Azkoitiko herriari omenaldia egiten dion artelanak, *Iranixek* adierazi zuenez: "Ez zentzu erromantikoan, baizik eta taupadak egiten diharduen gihar geldiezin baten zentzuan". Kontzejupea, San Martingo erlojua, Intsausti jauregia eta abarketagile bat agertzen dira, besteak beste, giza bihotz forma duen muralean.



BONBA ETA KIRIKO

Mataderoaren kanpoaldean egindako lana da bikote xelebrea osatzen zuten Bonba eta Kiriko txatarra biltzaileena. Matadeiko goiko solairuan bizi ziren biak, eta txatarra artean egiten zuten lo. "Libre" bizi zirela zioten Mataderoko kideek: "Txatarra jaso, hura herrian saldu, diru pila bat atera eta mozkortu egiten ziren". Kiriko hil zenean, Bonba egoitzara eraman zuten, "errukituta". Egoitzako ordutegiak eta jendearen kontrola kartzela omen ziren harentzat, Matadeixen guztiz aske bizi baitziren.



TXERLOIA, URDINEZ ETA GORRIZ

Gorka Larrañaga *Iranixek* Txerloia futbol zelaian egindako lana da irudian ageri dena. Txerloia futbol zelaiaaren sarrera nagusian gorri eta urdin koloreko murala osatu zuen artista azkoitiarrak. Anaitasuna futbol taldearen egungo armarria margotu zuen, baita gizon-emakume futbolariak ere. Futbol taldearen kolore ofizialak erabilita, gainera, bandera erraldoi bat irudikatu zuen azkoitiarrak.



ERREPORTZAKETAN

Udane Juaristik Altzibargo biribilgunean egindako lana da hormakoa. Abarketak josten zituzten emakumeei eginiko omenaldia da Juaristiren artelana, Azkoitiko historiaren zati handi bat gogoratzeko asmoz egina. *Erreportzaketa* hitzez ezagutzen zen joste lan hori Azkoitian, eta herritar askoren ogibidea zen garai batean. ■■■

11.617



KARI ALBERDI

Kuadrillako kamiseta garbigailuan, jatetxeetako bazkari eta afari erreserbak pil-pilean, txosnako karpa muntaian. Andremari usaina, bolbora usaina, komun publikoen usaina. Egitarauetako kontzertuen soinu-probak eta Alde Zaharreko bizilagunen belarrietako tapoiak. Tabernetatik ateratzeko zailtasunak izango dituzten parrandazaleak, eta etxeko atea zapaltzeko desiratzen egongo diren tabernariak. Gauean lurrean zerri eginda amaituko dutenak eta biharamunean lurreko zerrikeriarekin bukatu beharko dutenak. Hamalaua eta hemeretzia. Desfase-fasea eta damuaren mamua. Nerabezaroko lehen festa eta gurasoek jarritako ordutegia alboratu osteko kezka. Diru-zorrotik kanpora doan txanpon festa eta tripa barreneko kezka. Festa eta kezka. Kezka eta festa.

Bezperako txupinazora berandu iritsiko den azkoitiarrik izango da, agian; hemeretzi eguerdian etxea aurkituko ez duen azkoitiarrik izango da akaso, eta hamalaua iritsi aurretik mailetak eginda herritik ospa egingo duen azkoitiarrik ere izango da seguru. Baita herrira horretarako espresuki itzuliko direnak, lanean jaiegunak eskatu dituztenak, jaietan lanera joan behar dutenak eta jaiarekin nahiko lan dutenak ere.

11.617 azkoitiarrek (2022an ginenak, Wikipediaren fidagarritasunaren arabera) 11.617 andremari ezberdin biziko, ospatuko, madarikatuko dituzte beste urte batez, beste abuztu batez. 11.617 txupinazo, 11.617 herri bazkari, 11.617 txosnako edalontzi. 11.617 zenbakia aterako da ondo pasatu nahi dugulako amak jokatu duen loterian. Bakoitzak bere neurrian eta moduan, bakoitzak bere nahiekin eta beharrekin. Azkoitiartasunak arima inbaditzen dietenen andremariak egongo dira, urte guztiko beste larunbat batekin ezberdintzen ez diren parrandak direla diotenen andremariak egongo dira, festa eredu berrien beharra dagoela diotenen andremariak egongo dira, festa eredu berri horien eraikuntzan dihardutenen andremariak egongo dira. Haurrak, gazteak, ez hain gazteak, gaztetasunaren bila dabiltzanak, gaztetasuna galduko dutenak, gazteegiak direnak, gaztaroarekin nostalgiko jarriko direnak.

Plazan, etxean eta Goikolosan. Gaupasako gosarian, Atraskuko makinetan eta eliz atariko furgonetan. Plazaberriko postuan koloretako txirikorda bana egingo dutenak, hamabostean beraien burua film labor batean ikusiko dutenak, hamaseiko gaua luzatu eta behiei konpainia egiten bukatuko dutenak eta espresuki ganadua ikusteko esnatuko direnak.

Lehen andremariak eta azkenak. Onenak, okerrenak, gutxi gorabeherakoak, erdipurdikoak, sekula ahaztuko ez direnak, berehala ahazteko modukoak izango direnak, inoiz gogoratuko ez direnak. Berriak, betikoak, etxekoak, kalekoak, Azkoitikoak. ■■■

**AZKOITIARREK 11.617
ANDREMARI EZBERDIN
BIZIKO, OSPATUKO ETA
MADARIKATUKO
DITUZTE**

NON DAGO ZAKELMARI?



Uztailako Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 23. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Eba Sudupe** bazkideari egokitu zaio Ogi Berri okindegiaren **zortzi lagunentzako tarta**. Urrian, Herrixen merkatarik elkarateak emandako 50 euroko erosketa bonua zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna irailaren 15a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



Komertzixo
txikix
herrixen
esentzixe



"Istripua izan ez banu, ez nintzen idazten hasiko"

JUAN RAMON ALBERDI IDAZLEA

Juan Ramon Alberdi idazlea da. 46 urte zituela, istripu bat tarteko, bizkar muineko lesioa izan zuen. Mediku batek gomendatuta hasi zen idazten. Hasieran, eskuak lantzeko erabiltzen bazuen ere, gerora lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Ipuin laburren zein aforismoen lehiaketetan aritzen da egun azkoitiarra.

Testua: **Naia Arrizabalaga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **N. Arrizabalaga eta artxiboa**.

Juan Ramon Alberdi (Azkoitia, 1960) 15 urterekin hasi zen lanean, behin ikasketak utzi eta gero. 2007an ordea, bizitza aldatu zitzaion. Aldamio batean istripu bat izan zuen, eta bizkar muineko lesioa eragin zion hark.

Zenbait hilabetez ospitalean egon ostean, errehabilitazio fisikoko zein terapia okupazionalako saioekin hasi zen Gurutzetako ospitalean. Gorputz guztiari eragin zion lesioak, baina batez ere hankei eta besoei. Hala ere, horri aurre egin zion azkoitiarrak: "Errehabilitazioan berriz idazten ikasten ahalegintzen ginen".

Ordea, idaztea ez zuen saio haietara mugatu azkoitiarrak: "Bertako fisioari esaten nion idatziko nuela etxean eta hango makinak erabiliko nituela saioetan, azken haiek ez baineuzkan etxean". Fisioak, ordea, "guztiek berdina" esaten ziotela erantzun zion azkoitiarrari. Halere, etxean idazten zuena berari erakutsiz gero, etxean idazten utziko ziola hitz eman zion Alberdiri.

Horrela hasi zen idazten azkoitiarra: "Denbora asko izaten nuen etxean libre nahiz ospitalera bidean, eta denbora hori ipuin laburrak zein poesia ahalegin batzuk idazteko baliatzen nuen".

Orduan, etxean idatzitako ipuin bat erakutsi zion behin fisioari, eta hark ipuina lehiaketaren batera aurkeztuz gero sariren bat irabaziko zuela erantzun zion.

Gaztea zenean izan zuen lehen hartu-eman sormenarekin azkoitiarrak: "Errebalean bertso lehiaketa egiten genuen, eta han aritzen nintzen". Hala ere, argi dauka istripua izan ez balu, ez litzatekeela idazten arituko: "Istripua izan ez banu, azken aukeratzat ikusten nuen neure burua idazle gisa hartzea".

15 urterekin ikasketak utzi zituen Alberdik: "Nik eskolara joateari utzi nion garaian, artean bizirik zegoen Franco". Ordutik lanean bazebilen ere, lesioaren eraginez ezin izan zion lanbideari eutsi. Hori horrela, medikuek alta eman ziotenean, Azkoitiko AEKn eman zuen izena; urtebeteren buruan atera zuen EGA titulua. Halaber, bere emaztea 25 urtetik gorakoen unibertsitatera sartzeko proba prestatzen ari zela aprobetxatuz, unibertsitatera joateko asmorik gabe, bera ere probarako prestatzen hasi zen.

Probarako prestatu bakarrik ez; azterketara ere aurkeztu zen gero azkoitiarra: "Proba gainditu egin nuen, eta nire usteen aurka unibertsitatean





sartzea erabaki nuen". 50 urterekin sartu zen unibertsitatara Alberdi, eta Gizarte Antropologian graduatu zen.

Labur bezain sakon

Alberdik unibertsitateko lehen ikasturtea amaitzeaz zuela, irakasle batek Oihenart aforismo lehiaketaren berri eman zion, eta uda hartan bertan irakurri zuen aurreneko aforismoen liburu bat. Hori horrela, aforismoak idazten hasi zen bere kabuz: "Hasieran 60 bat aforismo idaztea zen helburua, baina, gerora, kantitateaz gain kalitatea ere eskatzen hasi nintzen neure buruari". Idatzitakoa landu, lehiaketan parte hartu eta "espero gabe" aipamen berezia egin zioten 2013. urtean. Orduz geroztik, urtero eman du izena azkoitiarrak lehiaketan, eta ia urtero eskuratu du sariren bat.

Oihenart aforismo lehiaketa da Alberdiren arabera euskaraz dagoen lehiaketa "bakarra". Hala arrazoitu du hark esana: "Hemen inguruetan ez dago horrelako beste lehiaketarik, nahiz eta gazteleraz badiren beste batzuk". Ordea, azkoitiarrak lanak euskarazko lehiaketara aurkeztu izan ditu soilik.

Aforismoak modu laburrean azaltzen diren pentsaerak dira. Azkoitiarraren hitzetan, aforismoen kontuak bere buruaren "alde ezezagunetarikoa bat" ezagutzeko aukera eman dio. Gaur egun aforismoak idazten jarraitzen badu ere, argi dauka idazteko derrigortasuna kentzen diola lehiaketaren batera aurkezteko asmorik gabe jarduteak.

Aforismoak idazterakoan ez dago metodo zehatzik, eta horregatik, desberdina da

bakoitzaren sortze prozesua: "Batzuk okurritu ahala idazten ditut; beste batzuk, berriz, denbora gehiago eskatzen didate". Halere, guztiak "burrutik" sortuak dira Alberdiren hitzetan. Idazle azkoitiarrarentzat oinarritzkoa da ezagutza batzuk izatea, baina ezagutzez gain, erregistroek ere "pisu handia" izan ohi dute, batez ere ulermenari dagokionean. Dena den, idazterakoan bi kontu izan ohi ditu azkoitiarrak helburutzat: beti publikoari sorpresa eragitea eta idazten gozatzea. "Aforismoa lorategi batean buelta bat ematea bezalakoa da niretzat".

Herriko lehiaketan aritua

Aforismoak idazten gustura aritzen bada ere, ipuin laburretan ere aritu izan da azkoitiarra. 2012an, istripua izan ostean, etxean idatzitako ipuin bat euskaratu eta jantzi zuen, Azkoitian antolatzen den Bizenta Mogel ipuin laburren

Juan Ramon Alberdi

- **Adina:** 63 urte.
- **Ikasketak:** Gizarte Antropologia eta Antropologian masterra.
- **Lanbidea:** Doktoretza tesia egiten.
- **Idazlea ez banintz...** Fisikoki horren baldintzatuta nagoenez, nire burua ez dut beste arloren batean ikusten.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Ez daukat zerbait zehatza egiteko joerarik.



lehiaketara aurkezteko. Gainera, bigarren saria lortu zuen orduan. Harrezkero, lehiaketa horretarako ipuin bat idaztea Alberdiren "urteroko helburuetako bat" izan da.

Alberdirentzat "oinarrizkoa" da Bizenta Mogelena bezalako lehiaketa bat herrian bertan izatea: "Lehiaketarik ez balego, ez nintzen inolaz ere idazten hasiko". Bere hitzetan "behar-beharrezkoak" dira lehiaketak: "Lehiaketa batera aurkezten zarenean, badakizu norbaitek lan hori irakurriko duela hura ebaluatzeko; horrek ahalik eta ondoen idaztera behartzen zaitu".

Umoretik baino "dramatik gehiago" jotzen du Alberdik ipuin laburrak idazterakoan. "Bizenta Mogel lehiaketaren sari banaketa ekitaldi batean

ere esan zidan epaimahaikide batek oso dramatikoa naizela". Ipuinen egiturari dagokionean, berriz, intriga mantendu eta amaieran ezusteko bat ematen saiatzen da. "Ipuina edozein gairi buruzkoa izanda ere, idazten hasterako amaierako sorpresa mamituta edukitzen saiatzen naiz, nondik eta nora joan jakiteko".

Etorkizunera erreparatuta, Alberdik argi dauka zer nahi duen: "Aforismoen liburu bat idaztea gustatuko litzaidake, baita eleberriren bat idaztea ere". Eginkizun horiei heldu aurretik, ordea, ikasketak amaitzea du helburu azkoitiarrak. Hala ere, "oinarrien falta kudeatu beharra" azpimarratu nahi izan du. ■



**MARKA GUZTIENTAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

**Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita**



San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com



Zein da behin bakarrik agertzen den elementua?



UMM! Ederra platera!

Hona hemen zure janari gustukoena... Ez dazula ikusten? Jakina, zerorrek marraztu behar duzu eta! Marraztu eta margotu.



Behaketa

Hona hemen Manipurtail bi egoera guztiz desberdinetan. Goiko honetan istripu bakia izan du. Behekoan lasaitu ederra hartzen ari da. Hala ere, badira sei elementu bi marrazkietan errepikatzen direnak. Zeintzuk ote dira?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

"Pribilegiatu bat sentitzen naiz Realeko ordezkaria izateagatik"

MIGUEL DIAZ REALEKO GIZONEN LEHEN TALDEKO DELEGATUA

Realeko delegatua da Miguel Diaz azkoitiarra. Imanol Alguacilekin eta Mikel Labakarekin batera egin zuen bidea Real B taldetik Realera, eta guztien artean futbolaren goreneko mailetara eraman dute talde txuri-urdina. Bere lanbideaz, eginkizunez eta Realean izandako bizipenez hitz egin du Diazek.

Testua: **Andoni Elduaiei**. Argazkiak: **Andoni Elduaiei eta utzitakoa**.

Realean bide luzea eginda, talde txuri-urdinaren gizonen lehen taldeko delegatua izatera iritsi zen duela urte batzuk Miguel Diaz (Azkoitia, 1969). Urte gutxian asko lortu du Diazek; izan ere, Realaren urterik oparoenak taldearen lehen lerroan ari da bizitzen. Futbolaren goi mailan lan egiteaz eta urte hauetan guztietan bizi izandakoez aritu da azkoitiarra.

Badira urte batzuk Realera batu zinela. Noiz hasi zinen Realean lanean?

18 urte nituenean hasi nintzen Realaren harrobian lanean. Nirekin jarri ziren harremanetan Realaren eta Gipuzkoako eskolen arteko lotura sendotuko zuen proiektu bat martxan jartzeko. Bi aldean arteko bitartekari lanak egiteko, zortzi pertsona kontratatu zituen klubak, eta bakoitzak bailara baten ardura hartu zuen. Niri Urola Kostas aritzea egokitu zitzaidan, bai gertutasunagatik, bai ezagutzagatik; izan ere, Floreaga ikastetxean eskola kiroleko begiralea izan nintzen lau urtez. Oraindik orain, Floreagako guraso batek gogorarazi egiten dit beraiek fitxatu nindutela eskola kiroleko talde hura zuzentzeko, eta han aritzea bultzada bat izan zela egun nagoen lekura iritsi nedin.

Real B taldeko delegatua izan zinen lehen taldera jauzia egin aurretik.

Realeko haurren eta kadeteen mailako teknikaria izan nintzen aurrena, eta gero, Ohorezko Mailako Gazte Mailako taldean bi-hiru denboraldi egin nituen delegatu bezala. Profesional mailako futbolerako jauzia, berriz, duela zazpi denboraldi egin nuen. Real B taldean hiru denboraldiz aritu nintzen delegatu lanean. Besteak beste, Imanol Alguacilekin, Mikel Labakarekin, Jon Ansotegirekin, Aitor Zulaikarekin eta Oier Agirrezabalagarekin ibili nintzen han. Imanolek eta Mikelek Real zuzentzeko erabakia hartu zutenean, Roberto Olabe Realeko kirol zuzendariak lehen taldeko delegatu postua eskaini zidan. Pentsatu gabe onartu nuen eskaintza.

Zer ezaugarri behar ditu futbol talde bateko delegatuak?

Funtsezkoa da kluba ondo ezagutzea eta taldeak parte hartzen duen txapelketen araudiak nahiz estatutuak behar bezala menperatzea. Zuhurtziaz jokatu behar da lanpostu honetan.

Lan asko egin beharko da Real bezalako klub batean. Zein dira zure eginkizunak?

Asko dira delegatu batek egin behar izaten dituen lanak. Batetik, garrantzitsua da jokalariek edota



entrenatzaile taldeko kideek izan ditzaketen premia guztiei erantzutea; horien beharrak kirol arlokoak izan daitezke edo ez. Bestetik, klubaren bidaia agentziarekin koordinatu behar izaten da bidaien logistika guztia, hala nola hotelak, charterra, ibilgailuak, segurtasuna eta ordutegiak. Era berean, diziplina kontrol zehatza egin behar izaten da astero. Horregatik da garrantzitsua txapelketen araudiak menperatzea eta lehiaketen zirkular guztiei erantzutea.

Zein da zure lanak duen alderirik ederrena?

Gustukoa dudan horretan, nire kasuan futboleant, lan egiteak ematen didan poztasuna da politena. Futbol klub batean lan egiteko zortea dut, eta horrenbeste urte Realean daramatzagunontzat, paregabea da Realeko kide izatea; are gehiago, azken denboraldietan bizitzen ari garenekin. Ikaragarria izan da titulu bat irabaztea, Europako txapelketetara sailkatzea eta taldearen harrobian entrenatzeko aukera izan dudana jokalarien hazkundera ikustea.

Eta zailena?

Kontrara, zaila da lan honek eskatzen duen ardurari erantzutea. Familiarekin nahiz lagunekin ezin izaten dut denbora asko igaro; izan ere, denbora asko pasatzen dugu etxetik kanpo.

Epaileekin harreman zuzenena duen klubeko ordezkaria zu zara. Epaile bakoitzak lana kudeatzeko modu desberdina izango du, ezta?

Antzekoak dira epaile gehienak. Teknikoki parekoak dira guztiak, nahiz eta partidako une jakin batzuetan bakoitzak bere erara interpreta dezakeen jokoa.

Zer-nolako harremana duzu futbol epaileekin?

Oro har, harreman adeitsua dut. Etxean jokatzen dugun partidetan haien lana errazten eta dituzten behar guztiei erantzuten saiatzen naiz estadiora iristen direnetik joaten direnara arte. Etxetik kanpoko partidetan ere berdintsu jokatzen dugu, baina bestelako maila batean.

Pandemia garaian traba eta zailtasun asko izan ziren.

Nola eragin zuen egoera hark zure lanean eta taldearen egunerokoa?

Pandemia erokeria handi bat izan zen, oso gogorra, guretzat berria zen zerbaitekin topo egin baikenuen. La Ligak eskatutako kontrolei erantzuteko, Javier Barrera Realeko medikuaren eta bion artean kudeatu behar izan genuen guztia. Egunero, kontrol zorrotz bat igaro behar izaten zen testekin; izan ere, La Ligako ikuskatzaile batek testen emaitzen berri ematen

zion egunero bere sailari. Entrenamenduak banaka edo talde txikietan egin behar izaten genituen, aukerarik ez zen izaten elkarrekin dutxatzeko eta jateko, eta murrizketa handiak izan genituen edozein jardueretarako. Halaber, asko zaildu zitzaigun bidaien logistika, eta estadioetako edukiera mugak ere jasan behar izan genituen. Tentsio handiko garaia izan zen. **Urte gutxi daramatzazu Realaren lehen taldean, baina azken urteek askorako eman dute. Ba al duzu anekdota berezirik?**

Pandemiak askorako eman zuen, baina albo batera utzita, Espainiako Errege Kopako finala dut gogoan. Txapeldun izan ginenez, nire futbol hastapenei keinu bat egiteko baliatu nuen momentu hura, ospakizunean Anaitasuna futbol taldearen bufanda jantzita.

Realak Errege Kopa irabazi zueneko al da zure unerik gogoangarriena?

Zalantzarik gabe. Beti gogoratuko dut final haren bueltan gertatu zen guztia: Zubietatik finalera abiatu ginenean zaleek egin ziguten agurra, finaleko partida, Imanolek prentsaurrekoan realzale guztientzat egin zuen keinua, taldeak hotelean egin zuen ospakizuna edo jarraitzaileek Hondarribiko [Gipuzkoa] aireportuan egin ziguten harrera. Dena den, badira beti oroituko ditudan beste une berezi batzuk ere, hala nola Real B taldetik lehen taldera eman nuen pausoa, Realak Errege Kopako final laurdenetan Madrilgo Bernabeu zelaian irabazi zueneko al eta Europa League txapelketan Manchesterren [Ingalaterra] lortutako garaipena.

Txapeldunen Ligan arituko da Realak datorren denboraldian. Europako zelairik handienetan aritzeko aukera izango duzue.

Luxu handia izango da talde handien aurka jokatzea. Nork esango zidan niri! Era berean, erantzukizun handia da. Hala eta guztiz ere, talde hau prest dago Txapeldunen Ligako multzokako fase ona egiteko, partida guztiak lehiatzeko. Entrenatzaileak dioen bezala, ikusiko dugu zer egiteko gai garen.

Sarri bidaiatu behar izaten da futboleant, zer esanik ez Realak bezalako talde batean. Gogorra egiten al da astero-astero bidaiatzen ibiltzea?

Azken denboraldietan Europako txapelketak jokatzen ari da Realak, eta datorrenean ere berdin jarraituko du. Ez zait gogorra egiten bidaiatzea, nahikoa onartuta dut-eta nire lanaren parte dela.

Alguacil entrenatzaileak mailarik gorenean jarri du berriro Realak. Nolako al Alguacil?

Diaz Realaren autobusera igozten. **UTZITAKOA**

**"HORRENBESTE URTE REALEAN
DARAMATZAGUNONTZAT PAREGABEA
DA REALEKO KIDE IZATEA"**

**"BETI GOGORATUKO DUT ERREGE
KOPAKO FINALAREN BUELTAN
GERTATU ZEN GUZTIA"**

**"PLAZERA DA AZKEN URTEETAN
IGOR [ZUBELDIA] FUTBOLARI
BEZALA HAZTEN IKUSTEA"**

Imanol gure liderra da, gure erreferentzia, Realak duen estandarterik handiena. Gutako bakoitzaren bertsiorik onena ateratzen du. Oso zorrotza da bai bere lanean, bai besteekin, baina, aldi berean, oso gertukoa da. Exijentzia horri esker, taldea gero eta lehiakorragoa da.

Alguacilen eta zure arteko koordinazioa funtsezkoa izango da taldearentzako. Zein hartu-eman duzu entrenatzailearekin?

Harreman estua dugu. Gure arteko komunikazioak argia eta zuzena izan behar du une oro. Ondo informatuta egon behar izaten dut, batik bat talde guztiari eragingo dioten erabakiak hartu behar izaten ditudanetan.

Taldekide bat gehiago zara. Eroso sentitzen al zara duzun karguan?

Pribilegiatua sentitzen naiz azken denboraldietan hainbeste kirol balentria lortzen ari den talde honen ordezkaria izateaz.

Realaren mutilen taldeak jo al du bere goia?

Ez. Jokin Aperribaik, Roberto Olabek eta Imanol Alguacil berak Realak hazten jarrai dezan egiten dute eta egingo dute lan. Talde gaztea da, eta guztiak ari dira erakusten denboraldiz denboraldi hobeto lehiatzen dutela taldean. Gainera, taldea Europako txapelketen esperientzia irabazten ari da.

Zeu ere futbol jokalaria izandakoa zara gaztetan. Besteak beste, Real B taldean jokatu zenuen urtebetez. Nolakoa izan zen zure futbol jokalaria garaia?

Betidanik gustatu izan zait futbola. Oso urte oparoak izan ziren bai kirol arloan, bai pertsonalean; izan ere, pertsona bezala hazten lagundu zidaten urte haiek. Gainera, talde askotatik igaro nintzenez, jende asko ezagutzeko aukera izan nuen; oso oroitzapen onak ditut gordeta, eta oraindik orain harreman ona izaten jarraitzen dut taldekide izan nitudan guztiekin. Halere, erronka handia izan da futbola nire lanarekin uztartzea.

Beste azkoitiar bat ere bada Realean: Igor Zubeldia. Zentzu horretan, taldeko jokalaririk bereziena al da zuretzat Zubeldia?

Zalantzarik gabe. Igor eta biok azkoitiarrak izatea ez da bion artean dugun lotura bakarra. Realaren harrobian lan egin nuen garaikoa da hura, eta maitasun berezia diet belaunaldi hartako kide guztiei. Benetako plazera da niretzat azken urteetan Igor futbolari gisa hazten ikustea. Berak eta Robinek [Le Normand] ligako erdiko atzelari bikoterik onena osatzen dute. ■■■

Berria, beti eder?



IORITZ GONZALEZ

Egunero moduan, eskolarantz abiatu naiz. Lanean buru-belarri hasi aurretik, egunero moduan, kafetxo bat hartu eta gelarantz abiatu naiz. Sartu orduko, gelako ordenagailua eta proiektorea piztu eta ikasleei egun ona eman diet; lauk erantzun didate. Gehienak ordenagailuei so daude; irakaslea sartu dela ere ez dira ohartu. Berriro ere, klasea hasterako, pantailen aurka borroka egin beharko dut ikasleen arreta lortzeko.

Orain dela ez asko irakurri nuen Suedian hezkuntzako plan digitalari mugak ezartzea erabaki dutela. PIRLS txostenean (ikasleen irakurmen eta ulermen maila ebaluatzeko nazioarteko azterketa) herrialde eskandinaviarra bederatzigarren postuan dago kokatuta. Aitzitik, ikasleen joera ikusirik, geletan pantailen erabilera murriztea eta liburuei lehentasuna ematea erabaki dute. Horrela zioen Suediako sailburuak: "Liburuek tableta batek ordezkatu ezin ditzakeen abantailak dituzte. Analfabeto funtzionalak beteriko belaunaldia sor dezakegu". Izan ere, duela gutxi, herrialde horretan 2.000 irakasleri eginiko inkesta baten arabera, bostetik batek zioen ikasleek sekula edo ia sekula ez dutela ezer idazten eskuz.

Suediaz gain, beste herrialde batzuetan ere arduratu dira hezkuntzan pantailen erabilera izan dezakeen eraginarekin. Esaterako, Irlandako Greystones hiriko ikastetxeek eta guraso elkarteek "smartphonerik gabeko kodea" adostu dute. Kode horri jarraiki, 13 urte bete arte ikasleei telefono mugikorrik ez erosteko konpromisoa hartu dute. Frantzian, eskolak pantailaz betetzen ari direla eta gogoetarik gabeko bide arriskutsua egiten ari direla salatu du *CoLINE* gurasoen kolektiboak. Kolektibo horren iritziz, haur eta gazte bakoitzari tableta edo ordenagailu eramangarria emateak ez du ikasketa hobea bermatzen; alderantziz, hainbat gaitasun kamusten ditu. Eskutitz irekia bidaliko diote Frantziako Hezkuntza ministroari. Herbeheretan ere, 2024tik aurrera ikastetxeetan telefono mugikorren erabilera debekatzea proposatu du gobernuak, ikastetxeekin eta gurasoekin adostu ondoren.

Hainbat ikerketak eta ebidentziak eskuz idazteak dituen onurak probatzen dituzten arren (garapen kognitiboa eta memoria sustatzen ditu, esaterako), orokorrean ikasleek gero eta gutxiago irakurtzen dute; zer esanik ez eskuz idatzi. Gurean ere gero eta gazteago hasten dira gailu digitalak erabiltzen. Hezkuntzan ere tokian tokiko digitalizazio planak daude, eta gehienak dirulaguntzez horniturik; egun, zaila da eskolan ordenagailurik gabe jardutea.

Seguraski, tresna modu horiek onurak ekarri dizkigute, ezbairik gabe. Baina, ez ote dira baliagarriak gaur egunerako belaunaldietan zehar erabili izan ditugun baliabideak? Bide zapaldua, bide segurua omen. Tresna digitalak ikaste-irakaste prozesuaren oinarri bihurtu aurretik, horiek izan behar duten presentziak ondo hausnartutako erabakia izan beharko luke, beste hainbat baliabiderekin uztartuz.

**TABLETAK EDO
ORDENAGAILUAK
EMATEAK EZ DU
IKASKETA HOBEA
BERMATZEN**

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41

Euskararen alde?



MIREN ALBERDI

Behin eta berriz entzuten dugu –azkenaldian gehiago eta ozenago– gure herrialdeko biztaleen erdia diskriminatzen dugula. Lehen errespetuaren izenean hartzen ziren hainbat neurrik, gaur egun, diskriminazioa dute helduleku. Nola da posible, ordea, hizkuntza gutxituak, zapalduak eta erasotuak hizkuntza menperatzaileak diskriminatzea? Norbaitek azal diezadala, arren.

Gure euskararen herri honetan, herri honen hegoaldean zehatzago izateko (iparraldeko errealtateari buruz beste batean hausnartuko dugu), bi hizkuntza ofizial ditugu. Bi ditugu, hala inposatu zutelako, eta halaxe inposatzen jarraitzen dutelako. Herri honetan, halaber, lehen eta bigarren mailako elebakarrak (uler bedi euskarari eta gaztelerari buruz ari naizela) ditugu. Gezurra. Batzuk ez daukagu elebaker izateko aukerarik ere; une jakin batzuetan baizik ez gara militante elebaker bihurtzen. Idazten ari den hau geroz eta sarriago.

Elebaker horiek, euskara ikasteko aukerarik izan ez duten horiek, diskriminazioa jasaten omen dute: besteak beste, hemengo erakunde publikoetan lan egiteko euskara jakitea exijitzen diegu; tituluak eskatzen dizkiegu. Testuinguru horretan ikaragarriak entzun

behar izaten ditugu: "Euskaraz ez dakielako ez al du Azkoitian, esaterako, lan egiteko eskubiderik?". Eskubidea bai, baina zerrendan atzerago egongo da, jakina. Edo betiko galdera madarikatua: "Zer nahi duzu, mediku ona ala mediku euskalduna?". Niretzat mediku ona euskalduna da, karreraduna eta euskalduna.

Azkenaldiko oldarraldi judizialen harira, hainbat gauza interesgarri irakurri ditut, eta hemen aipatu nahi dut bat edo beste. Garbiñe Larrea Iturraldei irakurri diot, adibidez, berak *Sendabelarrek dakitena* liburua argitaratu zuenetik, askotan erantzun behar izan diola "*¿Y en castellano para cuando?*" galderari. Duela ez asko ere gertatu omen zaio, Instagramen argitaratzen duen edukari buruz "*Todo esto que haces, ¿Por que no en erderaz tambien?*" galdetu omen zion jarraitzaile batek. Dagoeneko ez omen du justifikatzen bere hautua; orain euskara ikastera animatzen ditu.

Euskaraz sortzen duten guztiek eman behar izaten dituzte azalpenak, eta hori nekagarria da. Euskalduna izatea nekeza baita, edo nekeza egin nahi dute. Nago euskararen alde egitea dela nekeza askotan, eta Garbiñek esandakoarekin geratzen naiz: berak ez omen du euskararen alde egiten, euskaraz baizik. Egin dezagun euskaraz, gutxiago nekatuko gara eta eraginkorragoak izango gara. ■

Bertsoa paperean

GAIA: Oporrak
Izena: Ugaitz Beristain
Doinua: *Iparragirre abila dala...*

1 Urtean zehar ibiltzen gera

egin beharrei begira, etxeko nahiz kanpoko lanetan bada nahiko gira-bira, hainbeste lan eginda, merezitako ginda, udarak dakar dizdira ez dira bela etorri baina, oporrak iritsi dira.

2 Hondartzan bueltan izan daiteke

edo mendia topatu, parranda eta marxta azkarra ala patxara bilatu, etxetik urrunduta, etxean geratuta, ahal bada deskonektatu, bakoitzak nahi duen eran baina, oporrak aprobetxatu.

**Hondartzaz eta igerilekuaz
gozatzeko**

**UDAKO
GUKA
PRODUKTUAK**

Nahi al dituzu?



Informazio guztia: www.maxixatzen.eus/denda/

Miele

20 URTERAKO
DISEINATUTAKO
ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Baratzale ofiziala

**MILAR
LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak

Julio Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 897

* Informazio gehiago milar.es/20años helbideran

**Cooking
& Chef**
SUKALDE GUREA



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, I • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • fk@fkgraf.com